

VILLAFRANKA-RI



Festak bukatzerakuan uzten degu Villafranka iruditzen zaigula, burni bidearen goiko aldean anka puntetan dagoela, jendeak obeto bere arpegi alai-churiya ikusi dezan. Erri soñu aundikoa, seme argidortarretan famatuba eta bere chikitasunian, probintzi guziyan, menturaz berdiñik gabea.

Erri au albistatzian, laister ezagutu liteke, bere biztanlearen izate edo bizimodua. Emen ta an, aide guzietan, eche bakoitzean, ikusten dira denda mota askotakoak, chukun eta apaiñak; eta aiñ aundiya da jendearen egokitasuna tratuetarako, non, esan leiken, amaren sabeian eran dutela griña ori. Ezta iñor eramango dionik bertako umeai bere izkuntza legun eta eztizkoan, bere alaitasun eta saltzeko moduan. ¡Makurrak dira!... Denda batian sartzen danak, lanik aski izango du ateratzen zerbait erosi gabe; ainbesterañokoa da tratubetarako daukaten graziya. Orregatik geienak dirade itzlari bikaiñak, eta jendearen-kikoa iñork baño obeki eramaten dakitenak.

Beñ Villafranka-tar bat ezagutu duenak, naiz ta munduaren azken-azkeneko chokuan arkituko balu, antz emango lioke nungua dan; eta, alde guzietan bezela, gai onetan gizonai aurea artzen diote emakumeak: bildur izatekoa da beren eraso.

Onetaz gañera, eziñ genezake isildu Viilafranka-tarren arreta gu re aurrekoen oiturak gordetzeko.

Orain izandu diran euskal-festen azkenik ederrena izango da aurrera ere orla irautea.

NOTA.—Aunque con mucho sentimiento, no podemos menos de hacer constar para evitar suposiciones inexactas, que si no figura en este número, contra la costumbre establecida, el sermón del Sr. Azcue, se debe á que no hemos obtenido las correspondientes cuartillas, á pesar de haberlas solicitado con anticipación é insistencia. (*N. de la R.*)

